

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA MENDEKO DITUEN SOZIETATEEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2013.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Irrati Telebista (EITB) Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko dituen sozietateen 2013ko ekitaldiaren Urteko Kontuen fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek.

Fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu langileriaren eta ondasun, hornigai eta zerbitzuen kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean Epaitegiak uste du EITBk eta mendeko sozietateek zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantza jardura arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita.

Langileriari dagokionez, HKEEk azpimarratu du 2013ko ekitaldian zuzendaritzako lanpostu funtzionalarako irispidea 19 pertsonak izan dutela Erakundearen sorrera legeak aurreikusten duen “profesionaltasun” kontzeptua baliatuta; horietatik batek soilik ez zuen aldeaz aurretik kontratu-loturarik erakundearekin, ez eta goi kargudun kontraturik ere; honenbestez, lan kontratu finkoa egin zaio merezimendu eta gaitasun printzipioak batera bete gabe, aipatutako Legeak agintzen duen moduan.

Erakundearen eta mendeko sozietateen Urteko Kontu Bateratuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du.

Berebat, HKEEk hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei dagokienez.